

Donostian, Diputazio jauregian, 1980.eko Otsailaren 29an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, X. Diharce, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J. M.<sup>a</sup> Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; N. Etxaniz, euskaltzain ohorezko jauna; P. Altuna, J. A. Arana Martija, M. Atxaga, F. de Barrenenagoa, J. Berrojalbiz, P. Charriton, J. Fdez. Setien, X. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, J. M. Iriondo, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, F. Mendizabal, P. Uribarren, A. Zatarain, J. J. Zearreta eta A. Zubikarai euskaltzain urgazle jaunak; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigarai, A. Irigoyen (goizeko batzarrean egon da) eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azken batzarreko agiria ontzat eman ondoan, Nemesio Etxaniz euskaltzain ohorezko berriari ongietorria eman dio Villasante jaunak, izendamen agiria emanez.

Gasteizko Teologia Fakultateak J. M. Barandiaran eta M. Lekuona jaunei eman berri dien ohorezko Doktor izendapena aipatu du gero euskaltzainburuak zorionak emanez, eta euskaltzain oso diren aldetik Elkargoaren poza erakutsiz.

Julene Azpeitia euskaltzain ohorezko zen anderearen hil-berria aipaturik, J. San Martin eta J. L. Lizundia jaunek egin dute bere goratarrea.

## GOIZEKO BILKUREN BERRI

Bazko astean Arrasateko txostengileekin egitekoa den bilera aipatu da lehenik. Hondarribian batuko gara datorren Apirilaren 10ean, ostegunez, egun osoko jardunaldia bertan egiteko. Nahi eta ez Bidasoa aldeko Bortzirietan egin beharrik ez da ikusten, hasieran besterik esan bazen ere. J. San Martin eta J. L. Lizundia arduratuko dira antolakizun lanetaz, Bordari adiskidearen laguntzarekin.

Gramatika-azterketa lanei jarraipena ematea da, noski, helburu nagusia. Garrantzi eta lehengotasunik gehieneko puntuak zeintsu diren ikusi, mugatu eta lan-gile bakoitzaren esku uztea, alegia.

Denbora berean, euskalkien berri jasotzeko egin beharra dagoen itaunketa ere bultzatu beharra dagoela esan da hizkuntzarekiko Atlas egiten joateko. Bigarren gai bezala ikusten da dialektologiaren hau.

*Azkue bibliotekaz:* J. A. Arana Martija mintzatu da, ia bost mila liburu eta aldizkari atzeratu sartu direla azken hilabete hauetan adieraziz. 8.000 fitxa egin dira, eta liburuen klasifikapena egitekoa da. Leku eskasia nabarmentzen ari da gero eta gehiago.

## TXOSTENAK

Agustin Zubikarai jaunak, Azkue-ren hiztegian agertzen ez diren Ondarroako hitz eta esaera bereziak aztertu ditu, itsas arloko joskerak azpimarratuz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
*Fr. LUIS VILLASANTE*

*Idazkaria*  
*J. M.<sup>a</sup> SATRUSTEGI*